



06 ABENDUA

Ostirala

01

Larunbata

02

Igandea
Euskararen Eguna

03

Astelehena

04

Asteartea

05

Asteazkena

06

Osteguna

07

Ostirala

08

Larunbata

09

Igandea

10

Astelehena

11

Asteartea

12

Asteazkena

13

Osteguna

14

Ostirala

15

Larunbata

16

Igandea

17

Astelehena

18

Asteartea

19

Asteazkena

20

Osteguna

21

Ostirala

22

Larunbata

23

Igandea

31

Larunbata

30

Ostirala

29

Osteguna

28

Asteazkena

27

Asteartea


26

Astelehena

25

Igandea

24





□□ "CONTÁGIATE / EGIN, UKAN, EGIN", EUSKARAREN ALDEKO KANPAINA

Azaroaren 8an hasi zen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, urtero bezalaxe, euskararen erabileraren alde antolatutako sentiberatze kanpaina. Eta amaiera, berriz, abenduaren 3an izango du, Euskararen Nazioarteko Egunarekin batera, Donostian egingo den ekitaldi nagusian.

Kanpaina zehar ikusi ahal izan denez, oso berrizalea da aurtengo planteamendua. Hasteko eta behin, kanpaina osoa erdaraz antolatu da, euskaraz mintzatzen ez direnei €A€ko bi hizkuntza ofizialak ezagutzeak, elebitasunak alegia, gizarte kohesiorako balio duela adierazi nahi baitzaie, eta, era berean, bi hizkuntzak maila berekoak direla eta haien eza-gutza balio handikoa dela gizartea bera sendotzeko.

Kanpaina berri honen koordinatzaile Jorge Gimenez editorea da eta Anjel Lertxundi eta Antton Olariaga aritu dira berarekin lanean. Pertsonaia eta zabalduko den mezua Lertxundirena dira, eta Olariagak sortu du Ukan birusa, elkarbizitzaren birusaren irudia, alegia, kanpainaren mezua jendeari helarazteko. Ukan-ek bizitza luzea izatea da HPSren asmoa, eta, beraz, identitate marka edo ikurtzat hartu du, bai kanpaina honetarako, baita aurrerantzean egingo dituen kanpainetarako. Hain zuzen ere, azaroan bertan, Pragan eta Berlinen antolatu diren Expolingua hizkuntza azoketan erabili da, eta Durangoko Liburu eta Disko Azokan, Umeen Gabonetako Parkean ere bai, abenduan... Ikusi besterik ez dago **Berripapera** honetan duen presentzia.



Contágate para convivir mejor

Kanpaina handia egin da Ukan ezagutzera emateko. Euskararen aldeko sentsibilizazio ekimenen artean hiru prentsaurreko eman dituzte beste hainbat esparrutako euskaldunberriek: zientzialariek (Juan Ignacio Perez Iglesias, Pedro Migel Etxenike, Adelaida Umaran), arte alorrekoek (Loyola Garmendia, Afrika Bibanmg, Virginia Imaz, Kontxu Uzkudun) kazetariak (Gorka Landaburu, Julio Ibarra), kirol alorrekoek (Miguel Fuentes, Ana Urkijo) eta bestelako sektoreetakoek (Beatriz García Celaá, Ludger Mees). Ukan birusaren konplize dira, eta "ni ere kutsatu naiz" aldarrikapena egin dute.



Eta euskararen aldeko sentsibilizazio kanpainaren errematea izango den abenduko lehendabiziko asteburu honetan, Alex Ubago abeslariaren eta Bide Ertzean taldearen kontzertua izango da Bilbon abenduaren 1ean, ostiralez. Gasteizen, berriz, euskararen jaialdi bat antolatu da larunbaterako, hilaren 2rako. Jaialdian, haurrentzako eta helduentzako jolas eta ikuskizunak izango dira (gaztelu puzgarriak, marrazki lehiaketa, antzerkia, musika, mural bat bertan eginga...). Eta azkenik, Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat eginik, abenduaren 3an, Euskararen Eguntzat hartu den San Frantzisko Xabierren egunean, ikuskizun nagusia egingo da Donostian, ekitaldi baten osagarri guztiekin: musika, umorea, dantza eta abar.

Kanpaina honetan mezuak nagusiki gaztelaniaz eman dira, euskaraz mintzatzen ez diren pertsonak direlako hartzaileak, euskararen aldeko kontzientzia eta jarrera alda daitezen, gizarte maila guztietan elebitasuna aintzat har dadin. Beraz, birusa osasungarria da, gurera etorri da eta bertan geldituko da, konplizitatea eta gure bi hizkuntzen aldeko jarrera bultzatzeko.






02 Ukan sariak

Euskal Herrira etorri eta bertan geldituko den Ukan elkarbizitzarako birusa panpina moduan ezagutu dugu, doinua ere egin diote, eta, gainera, Euskararen Nazioarteko Egunean lehendabizikoz

banatuko dira bere izeneko Ukan Sariak, goian esan bezala, abenduaren 3an. Hori dela eta, saria nork jasoko duen jakin nahi baduzu, Donostiara hurbildu eta Ukan Sarien banaketa aurrez aurre ikustea besterik ez duzu.

Eta gogoratu:

Èkin, Ukan, ekin! Èkin Ukanekin!



PIO BAROJA, LITERATURA UNIBERTSALEKO BILDUMAN

Pío Barojaren heriotzaren 50. urteurrena bete den honetan, Eusko Jaurlaritzak omenaldia egin nahi dio idazle donostiarrari. Horretarako, Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, ÈIZIÈrekin elkarlanean bideratzen duen Literatura Unibertsala bilduman, Barojaren bi liburu argitaratu ditu, euskaratuta: *Zalakain abenturazalea*, Koro Navarrok euskaratua eta Inazio Mujika Iraolaren hitzurrea duela; eta *Jakintzaren arbola*, Josu

Zabaletak itzulia eta Miguel Sánchez Ostizen hitzurrearekin.

HPSk eta ÈIZIEK literatura unibertsaleko 100 liburu itzultzeko sinatu zuten lehen akordioa beste 50 literatur lanetara luzatu zuten. Pío Barojarenak, 122. eta 123. zenbakiak dituztenak, hurrenez hurren, zenbaki berezi moduan planteatu dira. Èlkar eta Alberdania argitaletxeen artean kaleratuko dira, ohi bezala.



Pío Baroja y Nessi

(Donostia, 1872-1956)



Medikuntza lanbidea alde batera utzi eta literatura izan zuen zaletasun eta lanbide idazle donostiarrak. 98ko belaunaldia izeneko idazle taldeko kide izan zen eta 1900. urtean argitaratu zuen bere lehen lana, *Vidas sombrías* ipuin bilduma. Narrazioa izan zen bere jardunbidearen ardatza, baina entseguak, antzerkia eta lirika ere landu zituen. Era askotako gaiak jorratu zituen, eta bere nobelak hamar trilogiatan bildu zituen: *Tierra vasca*, *La lucha por la vida*, *El pasado*, *El mar*, *La raza*, *Las ciudades*, *Agonías de nuestro tiempo*, *La selva oscura*, *La juventud perdida* eta *La vida fantástica*.

Nobelarik ezagunenak: *La casa de Ritzgorri* (1900), *El mayorazgo de Labraz*

(1903), *Zalacáin el aventurero* (1909), *La busca* (1904), *El árbol de la ciencia* (1911), *Aventuras, inventos y mixtificaciones de Silvestre Paradox* (1901), *Camino de perfección* (1901), *Paradox rey* (1906), *Las inquietudes de Shanti Andía*, *La estrella del capitán Chimista* (1930), *Las veleidades de la fortuna* (1927) eta *Los amores tardíos* (1942).

Barojaren pertsonaiei egilearen beraren bizimoduaren itzala darie, ez dira eroso sentitzen beren gizartean, jarrera ezkorra dute eta, gainera, ez dira gai inguratzaren dituen mundua aldatzeko. Zaputza eta etsipena arnasten da literatur lan hauen giroan. Izan ere, eszeptizismoa ardatz da Barojaren lanetan, istorioak kontatzeko aukeratutako ikuspuntuan eta pertsonaien tratamendu psikologikoan.

Udalekutzat erabiltzen zuen Berako Itzea etxean European zehar ibili zen garaitik abiatuta bildutako sorgintzari buruzko liburu-tegi bikaina gorde zuen.

euskararen Berripapera



HPSk eta Topaguneak Mintzalaguna ekimena sendotu eta hedatzeko hitzarmena sinatu dute 2006rako. Elkarrekin indartuko duten euskararen sustapenerako arlo honetan, ezagutzatik erabilerara pasatzea da asmoa.

Egitasmoaren helburua, ingurune egokiaren faltagatik euskaraz aritzeko zailtasunak dituzten euskaldun berriek, gehienetan hiri handietan bizi direnek, euskaraz mintzakide izango direnak topatzea da, ikasitakoa praktikan jartzeko eta euskaraz bizitzen hasteko.

Mintzalaguna orain 13 urte sortu zuen Donostiako Bagera euskaltzaleen elkarteak. Eta Topaguneak, sortu zenean, bere egin zuen proiektu hori. Beraz, 2007an 10 urte beteko ditu Mintzalaguna proiektua jorratzen. EAEn (Mintzalaguna, Berbalaguna), Nafarroan (Mintzakide) eta Ipar Euskal Herrian ere antolatzen da gaur egun, era askotako erakundeen laguntzari esker: euskara elkarteak, euskaltegiak eta ikastetxeak.

HPSk dinamizatzaile horietatik askoren biltzaile den Topagunearekin jardungo du elkarlanean. Asmo nagusia Mintzalaguna sustatzen duten gizarte eragile guztiengana iristea da.

Hitzarmen honen bidez HPSk duen helburua, gaur egungo Mintzalagunari laguntza ematea ez ezik, metodologia sortzea, egungo egoeraren azterketa egitea, hurrengo urteetarako lehentasunak zehaztea eta herri gehiagotara hedatzea ere bada, ahalik eta jende gehienarengana iristeko.

Ildo honetatik, gaur egun 20 herritan dago antolaturik euskaldun



Mintzalaguna: erabilerara da erronka

berriei euskaraz aritzeko aukera ematea helburu duen proiektu hau eta aurten 1.600 lagun inguruk hartuko dute parte.

2006rako sinatutako akordio honen arabera, Eusko Jaurlaritzak proiektu honetarako 72.776€ eman ditu.

Antolaketa modu taldeka izango da, eta helburu-taldeak hainbat irizpideren arabera osatuko dira: adin-taldeak, guraso taldeak, etorkinen taldeak, eta abar. Modu horretara, euskaldun berriek edo euskara bazter utzi dutenek, euskaldunekin elkartu eta egoera naturaleran hitz egin ahal izango dute euskaraz.



Eusko Jaurlaritzak, Topagunearekin akordioa egitean, euskara elkarrean sareaz baliatu nahi izan du, euskaltegi-tako ikasleak ez ezik, euskaraz jardun nahi duen edonork ere zerbitzu hau erabili ahal izateko. Beraz, edonora iristeko sare egokia izateagatik eta esperientzia edukitzeagatik sinatu da hitzarmena Topagunearekin.

Hala ere, hitzarmenak udalekin lanean aritzera lotuko du Topagunea. Ondoren, AERekin eta Mintzalagunaren antzeko proiektuak jorratzen dituzten beste eragileekin bat egingo du Topaguneak. Eta, azkenik, egindako lanaren balorazioa egingo da.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabalteko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria - Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria - Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16 berripapera@ej-gv.es

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejero de Política Lingüística